Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Peli Fernandez de Romarategi Lanas

Gasteiz, Araba
(1922)



Aurkibidea

Biografia



Gasteizko Errementari kalean jaio zen Peli 1922an. Aita Otazu herrikoa zuen, eta ama Apellanizkoa. Bost senide ziren. Aita, abertzalea oso, ebanista zen eta Bonilla etxean egiten zuen lan. Gerraurrean Postas kalean Pilar Landaburuk zuen ikastolara joan zen Peli; ondoren Zapateria kaleko Uralde etxera. EAJ-k sortutako Gaztetxu mugimenduan parte hartu zuen, ezpata-dantzari bezala (1934ko Aberri Egunean, besteak beste). Ebanista izateko ikasi zuen gero, Agirretxea lantegian. Gerraostean, propaganda klandestinoa banatzeagatik eta ikurrinak ipintzeagatik kartzelaratu zuten, beste bost lagunekin batera. Kartzelan 'Umandi' (Andoni Urrestarazu) ezagutu zuen, bere euskara irakasle izan zena. 1955ean Ekuadorrera joan zen misiolari, eta 33 urte egin zituen han, mural, mosaiko eta beirateak egiten. Bueltan Urkiolanbizi izan zen Peli, eta berak egindakoak dira bertako beirate batzuk. Gasteizko apaizetxe batean bizi zen elkarrizketa egin genionean.

Zintak

GAS-026

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Lizeaga, Irati
- **Data**: 2019-04-09
- **Iraupena**: 66 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Gasteizko Errementari kalean jaioa

- **Erref**: GAS-026/003
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:01:44. **Bukatu**: 00:02:50

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gurasoak arabarrak zituen: aita Otazukoa eta ama berriz Apinaizkoa. 1922an jaio zen Peli, Errementari kalean.

2. Aita, oso abertzalea

- **Erref**: GAS-026/006
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:05:16. **Bukatu**: 00:08:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Aita arotza zuen Pelik. Luxuzko altzariak egiten zituen. Bost anai-arreba ziren. Izenei buruzko azalpenak ematen ditu. Aita oso abertzalea zen. Gerra aurretik hil zen.

3. Umetan Gasteizen euskara gutxi entzuten zen

- **Erref**: GAS-026/007
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:08:07. **Bukatu**: 00:09:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bera umea zela Gasteizen euskara gutxi entzuten zen. Arrain-saltzaile bermeotarrei entzuten zitzaien "sardina freskue!" oihukatzen. Ekuadorren misiolari egon zenean, aldiz, kide gehienak euskaldunak ziren.

4. Gerra aurreko ikastola

- **Erref**: GAS-026/008
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:09:04. **Bukatu**: 00:12:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Gerra aurretik, umetan, ELAren Gasteizko ikastolara joan zen. Postas kalean zegoen hasieran, gero Zapatari kaleko etxe batera pasa ziren. Goizez eskola zen eta arratsaldez 'Gaztetxu Etxea', kultur ekintzak egiten ziren. Pilar Landaburu zuten irakasle.

5. 'Gaztetxu Etxea'-n antolatzen ziren kultur ekintzak

- **Erref**: GAS-026/010
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:14:39. **Bukatu**: 00:16:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura

Laburpena:
Zapatari kaleko etxea, goizez ikastola zen eta arratsaldez 'Gaztetxu Etxea'. Kultur ekintzak egiten ziren bertan: dantza, mendi irteerak, antzerkia...

6. 1934ko Aberri Egunean dantza egin zuen

- **Erref**: GAS-026/012
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:16:44. **Bukatu**: 00:17:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
1934ko Aberri Eguna Gasteizen ospatu zen eta Peli gazteak dantza egin zuen. Orduko mitinekin oroitzen da.

7. Gerra garaian, presoei laguntzeko taldeetan parte hartu zuen bere familiak

- **Erref**: GAS-026/013
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:17:24. **Bukatu**: 00:19:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra garaian Peliren familiako zenbait kidek kartzela eta erbestea ezagutu zituzten. Gerraren amaiera aldera, preso zegoen jendeari laguntzeko taldeak antolatu ziren eta Peliren familiak parte hartu zuen: bazkariak prestatu, arropak garbitu... Tabakorik ez zegoen eta makina batekin egiten zituzten presoentzako zigarroak.

8. Urte eta erdi kartzelan

- **Erref**: GAS-026/015
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:19:26. **Bukatu**: 00:23:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
Gerraostean, Franco Gasteizera etorri zen kongresu batean parte hartu eta Fray Frantzisko de Vitoriaren omenezko monumentu bat inauguratzera. Egun hartan, Pelik eta beste bost lagunek Senda pasealekua ikurrinaz bete zuten. “Erbesteratuei muga zabaldu”, “Presoak askatu” eta horrelako esaldiekin pegatinak ere ipini zituzten. Poliziak denak atxilotu zituen eta jipoitu egin zituzten, beraiek nahi zutena deklara zezaten. Peli urte eta erdi egon zen kartzelan.

9. Gerraosteko fusilamenduak eta debekuak

- **Erref**: GAS-026/017
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:25:16. **Bukatu**: 00:26:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra garaian, Santa Isabel hilerrian jendea fusilatzen zuten. Irratia ezkutuan entzuten zuten, debekatua baitzegoen.

10. Euskara ikasten Andoni Urrestarazu 'Umandi'-rekin

- **Erref**: GAS-026/018
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:26:46. **Bukatu**: 00:28:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Euskara ikasten Andoni Urrestarazu 'Umandi'-rekin hasi zen, biak kartzelan zeudela. Kartzelatik aterata, haren etxera joaten ziren ikasten jarraitzeko. Etxea non zegoen kontatzen du. Hiru hilabetez Zarautzera joan zen Peli, Alfa enpresaren tailer batean lan egitera, euskara praktikatzeko. Ekuadorren misiolari egon zenean, aldiz, kide gehienak euskaldunak ziren, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak.

11. 'Umandi'-k euskara ikasteko 100 ikasgai prestatu zituen kartzelan

- **Erref**: GAS-026/019
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:28:31. **Bukatu**: 00:29:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Andoni Urrestarazu 'Umandi' kartzelan ezagutu zuen. Hark euskarazko ehun ikasgai prestatu zituen, buruz koaderno batean idatzita. 1955ean 'Gramática Vasca' argitaratu zuen, gerra ostean argitaratu zen lehen euskal gramatika liburua.

12. Gasteizen kartzela eta kuartelak non zeuden

- **Erref**: GAS-026/020
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:29:44. **Bukatu**: 00:30:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gasteizko kartzela Postas kalearen bukaeran zegoen. Gaur egungo 'Corte Inglés' dagoen lekuan kuartelak zeuden.

13. Gerra aurreko batzokia

- **Erref**: GAS-026/024
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:36:06. **Bukatu**: 00:37:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Gerra aurretik batzokia Gasteizen non zegoen azaltzen du. 1934ko Aberri Eguna han ospatu zuten.

14. Ekuadorrera misiolari

- **Erref**: GAS-026/025
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:37:28. **Bukatu**: 00:40:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
1955ean Ekuadorrera joan zen, misiolari sekular modura. Han eskolak, etxeak, elizak etab. eraikitzen lagundu zuten. Neguan euri asko egiten zuen, udan berriz tantarik ez. Bideak asfaltatu gabeak ziren. Ezpata-dantzako kideak 'Acción Católica'-n sartu ziren eta haren bidez joan ziren misiolari. Peli arotza zenez, eraikuntzen obretan parte hartu zuen Ekuadorren.

15. Mosaikoak eta beirateak egiten

- **Erref**: GAS-026/026
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:40:32. **Bukatu**: 00:41:55

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Ekuadorren misiolari zegoela, arotzeria lanak egiten, Jose Mari Zunzunegi apaiz zestoarrak mosaikoak egitera animatu zuen. Euskal Herrira itzulitakoan, Urkiolako elizako mosaiko eta beirateak eraiki zituen.

16. Artisau lana, Urkiolan eta Ekuadorren

- **Erref**: GAS-026/028
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:42:40. **Bukatu**: 00:44:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Urkiolako elizako mosaiko eta beirateak eraiki zituen. Jose Mari Muñoz bilbotar abadeak egin zituen diseinuak. Ekuadorko mural handiak ere hark marraztu zituen eta Pelik eraiki. Mural hauek non dauden aipatzen du. Igeltsero eta arkitektoekin batera lan egiten zuten.

17. Gasteizko euskara

- **Erref**: GAS-026/030
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:46:48. **Bukatu**: 00:48:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gasteizen azken urteetan euskara gehiago entzuten da. Bera umea zenetik asko aldatu da egoera. Pelik beti euskaraz egiten du.

18. Aitak Bonilla altzari fabrikan egin zuen lan

- **Erref**: GAS-026/035
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:54:02. **Bukatu**: 00:55:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Bere aitak San Pedro parrokiako kapera bateko lurra ipini zuen, Bonilla altzari fabrikan lan egiten zuela. Luxuzko altzariak egiten ziren bertan.

19. Etxean beharra zegoela eta lanean hasi behar

- **Erref**: GAS-026/036
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:55:39. **Bukatu**: 00:57:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Lanbideak » Arotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gerra hasi arte ibili zen ikastolan. Gero lanean hasi behar izan zuen, etxean beharra zutelako. Hotel batean mandatari gisa ibili ondoren, Agirre familiak Aiztogile kalean zuen aroztegian hasi zen lanean eta han ikasi zuen ogibidea.

20. Urrestarazu anai-arrebak

- **Erref**: GAS-026/037
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:57:22. **Bukatu**: 01:00:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Andoni Urrestarazu 'Umandi'-ren arreba, Maria Terese, bere ilobaren irakaslea izan zen. Eskolatik bota egin zuten abertzalea zelako. Araiakoak ziren Urrestarazutarrak. Andoni Madrilen zegoela hasi zen euskara ikasten. Erbestean egon zen, iparraldean.

21. Zinema 'Gaztetxu Etxea'-n

- **Erref**: GAS-026/038
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 01:00:48. **Bukatu**: 01:02:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
'Gaztetxu Etxea'-n antzerkia gazteleraz izaten zen. Zinema ere bazegoen. Pelikulek soinurik ez zeukaten eta piano-jole bat egoten zen zuzenean musika jotzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-29

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com